

ZAINTZAKO SISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIO FEMINISTA BATERANTZ

**GASTEIZ, 2022KO OTSAILAREN 19A ETA 20A
LABURPEN DOKUMENTUA**



BIZITZAK ERDIGUNEAN

**Euskal Herriko
Koordinadora Feminista**



1.	DOKUMENTU HAU KOKATZEN	
2.	ZAINZA-SISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIORAKO BIDEAN	5
	2.1.Zaintzaren lehen hurbilpen bat	5
	2.2.Zaintza, eskubide kolektibo	6
	2.3.Zaintza sistema publiko komunitarioa	7
3.	GURE PROPOSAMEN FEMINISTA ERAIKITZEKO BIDE ESTRATEGIKOAK	8
	3.1.Pribatizazioaren aurrean... Kolektibizatu	8
	3.2.Zaintza-lana duintzea eta profesionalizatzea.	12
	3.3.Zaintza-eredu emanzipatzailea eraikitzea	16
4.	DIMENTSIOEN ARABERAKO ZAINZA-SISTEMA PENTSATZEN	20
	4.1 Dibertsitate funtzionala.....	21
	4.2 Zahartzea.....	22
	4.3 Haurtzaroa	23
	4.4 Bizitzan zehar.....	24
5.	PREMIAK ETA ALDARRIKAPENAK	26
	5.1.Adostutako premiak.....	26
	5.2.Adostutako aldarrikapenak.....	28
6.	ESTRATEGIA.	31

1. DOKUMENTU HAU KOKATZEN



Bizitzak Erdigunean Euskal Herriko Koordinakunde Feminista konfinamenduaren garai berean **sortu zen**. Zenbait kolektibo eta kide feministak ulertu genuen gutxienez bi noranzko zituen une kritiko baten aurrean geundela. Alde batetik, COVIDak feminismoek jada salatua genuen zaintzaren krisialdia bizkortzeko arrisku handia zegoen. Beste alde batetik, aparteko aukera zabaltzen zen erakundeak interpelatzeko eta errotiko aldaketak eskatzeko zaintzaren antolaketa eremuan eta, are gehiago, bizi dugun sistema kapitalista heteropatriarkal eta kolonialistan. Gainera, zaintzaren inguruko kontzientziari dagokionez berebiziko unea zela ikusten genuen gizartean inflexio puntu bat eragiteko. Une kritiko horretan, "pandemiaren aurrean feminismoa txertatzeko" aliantza sendoak eta ikusgarriak sortu behar genituen.

Zaintzaren inguruko begirada feminista bat eraikitzen ahalegintzen ari gara, aintzat hartuko dituen zaintzak duen alderdi positiboa (bizimodu komunaren gaineko erantzukizun gisa) eta aldi berean duen alderdi negatiboa (horiek zeharkatzen dituzten sakoneko desparekotasunak). Hortik abiatuta, "zaintzaren eguneroko politika" izenda daitekeenaren sakoneko eraldaketa dugu helburu: gure etxe, harreman, kale eta herrietako egunez eguneko, alegia. Mikropolitika hori beti izan da feminismoen apustu argia, eta, gure ustez, ezinbestekoa da sistema osoa iraultzeko. Aldi berean, eremu instituzionalean errotiko aldaketen aldeko apustua eginez osatu nahi dugu. Horren ildoan, **zaintzarako eskubide kolektiboa posible egingo duen euskal sistema publiko-komunitarioaren aldeko apustu irmoa egiten dugu.**

2022ko otsailaren 19an eta 20an jardunaldi batzuk antolatu genituen Gasteizen, hiru helbururekin

- i. Proposatuta nahi dugun zaintza-sistema publiko-komunitarioa zein den definitzeko **gogoetarako gune feminista sortzea**.
- ii. Proposamen hau garatzeko **intzidentzia tresnak lantzea**.
- iii. Trukerako eta **indar metaketarako** espazioa ahalbidetzea.

Jardunaldien aurretik, Bizitzak Erdigunean-ek *Zaintza feministarako sistema publiko-komunitario baterantz* eztabaida-dokumentua partekatu zuen. Jardunaldietan, Hego Euskal Herriko talde feminista eta aliatu ugari laurogeita hamar **emakume*** inguru bildu ginen.

Esku artean duzun dokumentu hau beraz zer da? **Jardunaldi horien laburpen-dokumentua da?** Batetik hemen jasotzen dira izan genituen hausnarketa kolektiboak. Bestetik, jardunaldietan partekatu ziren baina berariaz eztabaidatu ez ziren elementu batzuk ere jasotzen dira. Azken horiek, hertsiki jardunaldien ondorioak direnik esan ezin daitekeen arren, begirada kolektibo baten parte direla pentsatuz hemen jasotzen dira; bi urteko ibilbidean zehar koordinakundea hainbat unetan osatu duten edo/eta hortik antolatutako hainbat batzar eta topagunetan parte hartu duten lankide ugari eraikiak dira. Uste dugu gainera, ez zutela polemika edo deserosotasunik sortu jardunaldietan.

Emakume kategoria politikoa erabiltzen dugu egungo testuinguruan erabilgarria egiten zaigulako. Hala ere, zis-emakumeak baino zabalagoa den taldeaz ari gara ere. Euren burua halakotzat duten zis eta trans emakumeak txertatu nahi ditugu bertan, euren burua emakumetzat ez duten bollerak eta emakumea/gizona dikotomia lehertzen duten pertsona transgeneroak. Izartxoak, bide batez, premia bat ere azaleratu nahi du, emakumeak, bollerak eta transak askotarikoak ez ezik, menderatze anizkoitzeko sistemaren pribilegio/zapalkuntza harremanen bilbe konplexuan dugun kokapenaren arabera ere oso posizio desberdinak hartzen ditugula



Jakin badakigu, gure kontzeptu eta aldarrikapen ezberdinen bereganatze instituzional bat eman daitekeela eta hauek edukiz husteko arriskua dagoela. Horregatik uste dugu garrantzitsua dela proposamen argi bat eraikitzea, ofizialarekin hausturan. Adibidez, EAJ/Eusko Jaurlaritza arlo komunitarioan pentsatzen ari da, baina hura despolitizatuz, edukiz hustu eta privatizatu egiten du. Horren aurrean, komunitatea guretzat zer den definitu behar dugu, bestela, bere eredu nagusituko baita. **Eztabaida ideologikoetan ez ezik, erabakiguneetan ere egon behar dugu: botere-esparruetan.**



2. ZAINITZA-SISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIOAKO BIDEAN



2.1 Zaintzetara lehen hurbilpen bat

Zaintzen inguruko genealogia feminista balioan jartzetik abiatzen gara, marko nahiz praktika zehatz moduan. Genealogia horretatik, gure ustez, **zaintza bizimodu duina edukitzeko oinarria da**: ez da unean uneko zerbait edo alderdi koiuntural bat. **Zaintza bizitzako une eta eremu guztietan da beharrezkoa**. Gure gorputzen eta gure komunitateen iraunkortasunerako ezinbestekoa da; hau da, bizitza, ongizatea eta osasuna iraunarazteko eta kudeatzeko. Zaintza zer den eta nola antolatu nahi dugun sakoneko eztabaida da, eta hainbat eta hainbat erpin ditu. Jakitun gara zaintzaren kontzeptzioa eta eredu aldaketak egungo jendarte-antolamendua eraldatzea dakarrela. Beraz, zaintza eraldaketa sozialerako bultzada da; potentzial politiko izugarria du.

Hala ere, gaur egungo zaintza-erregimena bidegabea, desorekatua eta mugatua da. Denbora- eta lurralde-testuinguruetatik harago, **emakumeak* gara bizitzari eusten diogunak, eta oso modu desparekatuan egiten dugu, esplotazio- eta prekarizazio-baldintzetan**. Horren aurrean, pribilegio-tokietatik (botere politiko eta ekonomikoak, erakunde publikoak, enpresak, gizon-izatea, zuri-izatea...) zaintzaren erantzukizunari uko egiten zaio sistematikoki. Hori dela eta, **zaintzak bere testuinguruan ulertu behar dira hau da, kokatuak dira. Gainera, beraien izaera duala da eta osotasunean eta begirada sistemiko batetik heldu behar zaie**:

- **kokatua** da, gauzatzen den testuinguru zehatzak mugatzen duelako.
- **duala** da, aldi berean, pobrezia direlako baina baita aukera ere. Alde batetik, pobrezia da betebeharrak gisa gauzatzen denean, desparekotasunetik abiatzen denean eta hura areagotzen duenean, negozio pribatua denean. Baina beste alde batetik, aukera ere bada, balioesten dugun eta hautatzen dugun zerbait, baldintza duinetan eta hautatuetan egiterik daukagunean, denon artean amalurra eta bizimodu komuna zaintzen dugunean.
- **osotasunean** heldu behar zaio, bizi-zikloaren une guztietan eta egoera eta testuinguru guzti-guztietan beharrezkoa delako. Hala denez, ikuspegi sektorializatuegiak gainditzeko apustua egiten dugu.
- Zaintzaren inbisibilizazioa eta prekaritatea aintzat hartuko duen begirada **sistemikoa** hartu behar da kontuan, duela hamarkada askotatik hona bizitzen ari garen eta austeritate politika biozidek eta pandemiak berak larriagotu egin duten zaintza krisi hau halakotzat hartuko duena.

2.2 Zaintzarako eskubide kolektiboa

Egoera horren aurrean, zaintzarako eskubide kolektiboaren aldeko apustua egin nahi dugu; hau da, pertsona guztiek, bizi osoan zehar, askatasunez eta konpromisoaz, zaintza eskaini eta jasotzeko eskubidearen alde. Mendekotasun-egoerez harago doa, eta berekin dakar erabaki ahal izatea zenbateraino, nola eta nor zaindu nahi dugun; zenbateraino, nola eta nork zaintzea nahi dugun; zaintzarik ez dugula nahi erabakitzeko eskubidea barne. Eskubide hori modu KOLEKTIBOAN ulertzen dugu, eta ez modu indibidualizatuan. Kolektiboaren ideia horretatik abiatuta, **aldi berean defendatzen dugu emakumeek ez ditzatela gehiago beren bizitzak inmolatu zaintzeko betebeharraren izenean, eta, bide batez, salatzen dugu, gaur egun, ez zaintzea pribilegio bat dela.**

Zalantzak ditugu ea ez zaintzea eskubide gisa formulatu ote daitekeen. Komunitatean bizitzeak, esan nahi du beti jaso eta eman egin behar duzula? Ez zaintzeko eskubidea, nor zaindu nahi duzun aukeratu ahal izatea da? Zaindu ahal izateko bestelako eskubide batzuei uko egin behar ez izatea? Emakumeei odol loturek zaintzera behartzen gaituztenean, ez zaintzea aukera bat da? Badakigu ezin dela orokortu (agian esan daiteke norbaitek eskubidea duela pertsona jakin bat ez zaintzeko. Baina, oro har, ezin da pertsonarik edo kolektiborik egon sistematikoki ez zaintzea erabakitzen duenik, adibidez, gizonek). Beraz, badakigu zorrotzak izan behar dugula ez zaintzeko eskubidearen formulazioarekin: zaintzeko derrigortasunik eza, izan liteke? Eta batipat oreka baten bila ari gara: Zaintza betebeharra izan behar da? Edo eta emakumeen bizkar gainetik kendu behar dugu?

Zaintzaren egungo antolamendu sozialaren gain aritzeak honako hauek eskatzen ditu:

- **Premiei** erantzutea, hau da, gaur egun prekarioenen eta kolapsatuta dauden egoerei aurre egitea.
- **Ongizate estatuaz harago** doazen eredu kolektiboki pentsatzea eta hauek imajinatzea, sistema kapitalista heteropatriarkal eta kolonialistari aurre eginez, eta zaintza kokatuz bizitza erdigunean jarriko duen sistema sozial baten ardatz gisa. Ezin dugu zaindu ditugun denborekin. Zaintzez hitz egitea, kapitalaren eta bizitzaren arteko tentsioaz hitz egitea da.

Gure ustez, posible da **bi helburu** horiei erantzuten dieten politikak abiatzea. Horretarako, ongizate estatu deituriko horren mekanismoak erabil ditzakegu, betiere planteamendu merkantilistetatik aldentzen bagara, enpresek zaintza-sistema prekarizatu batetik etekina ateratzea saihesten badugu, eta logika publiko-komunitario baten alde egiten badugu.

Ido horretan, zaintza-politikak itsasargi izan behar dira, eraiki nahi dugun jendarte-eredurako trantsizioa ahalbidetze aldera; sistema kapitalistatik at trantsitatzeko, bizitza erdigunean jarriko duen eredu baterantz. Egoera konkretuetan zaintzarako eskubidea bermatzeko berariazko politikak sustatuko dituzte, eta, aldi berean, gainerako politikak norabide horretara aldatzeko bultzada izango dira.

Gure eragin-esparru politikoa Euskal Herria da. Hala ere, badakigu Euskal Herrian errealitate administratibo desberdinak daudela, eta horrek gure estrategiak errealitate bakoitzera egokitzea eskatzen du. Horregatik, lurraldetasunean pentsatzerakoan, geure buruari galdetzen diogu Osakidetza edo hezkuntza erreferentetzat har ditzazkegun.

Zaintzaren konplexutasunari heltzeko behetik gorako prozesu zabalak behar dira, hurbileko errealitateari lotuta, langileon, bereziki emakume langileon eta komunitatearen partaidetzarekin eta gertuko erakunde eta herri mugimenduko eragileekin.



2.3 Zaintza-sistema publiko-komunitarioa

Dokumentu honetan galdetzen dugu nola egituratu dezakegun benetako erantzukizun partekatu bat bizimodu komunaren zaintza-lanetarako. Gure ustez, **beharrezkoa da zaintza-lanak demokratizatzea**: ezinbestekoa eta premiazkoa da zaintza-politika bat pentsatzea, euskal zaintza-sistema publiko-komunitario berri bat, alegia.

Sistema publiko-komunitarioaz ari gara, baina kontziente gara, eztabaida asko ditugula emateko: zein publikori buruz ari gara? Eta zein komunitateri buruz? Nola lotu behar dira biak, arlo publikoa eta komunitarioa?

Gure ustez, **publiko izateak zaintzarako eskubidea bermatu behar du** (eskubide sozial gisa ulertzen dugulako). Sistema publikoak eskaintzen dituen zerbitzuak guztion eskura egon behar dira. Publikoak **unibertsala eta bidezkoa** izan behar du. Arlo publikotik **finantzaketa eta kalitatea** bermatu behar dira. Gainera, **merkantilizatu gabeko** publikoa izan behar du.

Mugimendu feministak **komunitateari buruz ere hitz egin behar duela uste dugu. Gauza asko egiten ditugu jada komunitate klabean, eta hori ere aitortu behar da**. Komunitateaz aritzea bizitza komunaren logikan eraikitzearen aldeko apustua egitea da, zaintza eskubide eta erantzukizun kolektibo gisa ulertuz. Baina komunitateak ez du bete behar administrazioek estali gabe uzten duten hori.


Eztabaidatu behar duguna arlo publikoaren eta komunitarioaren arteko harremana da, ez baita dikotomikoa, eraikuntzan dagoen zerbait baizik. Komunitateaz hitz egitean, gutxienez honako hauek azpimarratzen ari garela uste dugu:

- Sistemaren errotze lokala: **komunitateak tokiko sustraitze du**. Eta, arlo publikoaz hitz egiten dugunean zeri buruz ari garen hobeto definitu behar bada ere, guk publikoaren esparrua **udalgintzarekin** lotzen dugu, eta horrek arlo publikoa komunitatera hurbiltzen du.
- **Demokrazia parte-hartzailea**: sistema publikoa komunitateak sortzen du. Sektore publikoan zuzenean parte hartzeko mekanismoak behar dira. Arlo komunitarioak izan behar duen papera gehiago eztabaidatu behar dugun arren, gure ustez, gutxienez arlo publikoaren behaketa (behetik gorako kontrola) eta proiektzio-rol bat (zaintzarako eskubidea nola bermatu nahi dugun definitzea) barne hartu behar ditu.

Zentzu horretan, sistema publiko-komunitarioa **governantza-eredu berri** gisa uler dezakegu.

Era berean, **zaintza-sistemaren izaerari buruz gehiago eztabaidatu** behar dugu: Zaintza sistemak beste sistema batzuk barne hartzen ditu bere baitan? (adibidez, osasun sistema) edo sistema ezberdinak dira elkarrekiko loturan? Zaintza sistemak beste sistemak barne hartzen baditu, arriskua dago zaintza sistema “saski-naski” bihurtzeko. Osasun sistema zaintza sistemaren barruan sartuz gero, ez du dena jango? Sistema ezberdinen pisua ere kontuan hartu beharra dago baita zentralizazio-deszentralizazio estrategien aukera eta arriskuak ere. Horrela irudikatu daitezke aukera ezberdinak:

1. zaintza-sistema eta beste sistema batzuk elkarrekiko harremanetan, zaintza izanik erdigunea
2. zaintza-sistemak beste sistema batzuk barne hartzen ditu eta
3. sistema autonomoak dira elkarren artean.



Azkenik, badakigu nahi dugun sistema konplexua dela eta garestia dela, publikoaren aldeko **inbertsio handia** eskatzen duela. Hori arrisku bat da, baina **zerga-erreforma sakon eta progresibo** bat bultzatzeko arrazoi sendoa ere bada. Edo beste finantzaketa-eredu batzuk pentsatzeko, hala nola, **enpresek ordaindu beharreko zaintza-zerga bat**.

3. GURE PROPOSAMEN FEMINISTA ERAIKITZEKO BIDE ESTRATEGIKOAK



Unean uneko bizi-egoerei (haurtzaroa, zahartzea...) erantzuteaz gain, zaintza-sistema publiko-komunitarioa abian jartzeak **hiru intzidentzia-bide estrategikoetan** aurrera egiteko aukera eman behar digu: 1) zaintzaren kolektibizazioa; 2) zaintza-lanen duintzea eta profesionalizatzea; eta 3) zaintza-eredu emantzipatzailea eraikitzea.

Hiru bide horiek jardunaldietan eztabaidatu ziren. Bost taldetan antolatu ginen eta talde guztiek denbora eman zuten atal bakoitza eztabaidatzen. Esan dezakegu termino oso orokorretan, balekotzat jo zirela. Hala ere, eztabaida handia dago zehaztapenetan.

Atal bakoitzean, lehenik eta behin, jardunaldietan hausnarketarako izan genuen abiapuntua kokatu dugu:

- Hiru intzidentzia-bide horietako bakoitzari buruz Bizitzak Erdigunean-etik emandako azalpena (egungo egoera eta gure aldaketa-apustua) kokatu dugu; eta eztabaida ireki zuten funtsezko galderak jaso ditugu.
- Hortik aurrera, jardunaldietan partekatu genituen adostasunak eta korapiloak jaso ditugu.

Gai hauetako edozein jorratzeko, **argi daukagu aurreko esperientzietatik ikasi behar dugula, eta dagoeneko martxan dauden eta funtzionatzen ari diren gauzak aztertu behar ditugula**: mendetasuneko euskal sistema publiko baten aldeko Plataformak egin zuen lana; adinekoen esperientzia kolektiboak; aukeratutako familiek enpresa eta hitzarmen batzuetan izaten hasi diren aitorpena...

3.1 Pribatizazioaren aurrean... kolektibizatu

3.1.1. Hausnarketarako abiapuntua

Kolektibizatzearen aldekoak gara	
Zein egoeratan gaude?	Zer lortu nahi dugu?
<p>Egungo egoeran, zaintza:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erabat familiarizatua dago: familien erantzukizun nagusi izaten jarraitzen du, doan zaintzeko denboraren bidez edo zaintza erosteko diru bidez (etxeko enplegua edo merkatuko zerbitzuak). • Gero eta merkantilizatuago dago: zaintzarako denborarik uzten ez digun sistema batean, familiek zaintza erosten dute eta erakundeek pribatizazioa sustatzen dute (zaintza-zerbitzu publikoak azpikontratatzeko dira, edo zaintza erosteko diru-laguntzak ematen dira). • Erabat feminizatua eta gero eta arrazializatuago dago: gizonek jarraitzen dute erantzukizunik bereganatu gabe. Emakumeek jarraitzen dute zaintza-lanetan; eta emakume pribilegiatuek ezin dutenean, beste emakume batzuegan uzten dute zaintza-lana. 	<p>Kolektibizatzea zer den:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eragile guztiek zaintzeko erantzukizuna beren gain hartuko duten espazioak egotea; jasotzen dugun zaintza ez izatea gure familia-sarearen edo dugun diruaren arabera. • Pertsona guztiak beren buruaren eta gainerakoen zaintzaren erantzukizuna hartzea: externalizazioaren logikarekin haustea (egin diezadatelara: emakume batek, estatuak edo erosita).

Galdera irekiak

Zaintzak zer izan behar du, erantzukizun publikoa ala publiko-komunitarioa?

Zaintza ez dela negozio bat esateak zer esan nahi du?

Aipa al dezakegu desinstituzionalizazioa birfamiliarizazioa aipatu gabe?

3.1.2. Jardunaldietako gogoetak.

Zer da komunitarioaren kontu hori? Zein da nahi dugun komunitatea?

Hobeto definitu behar da, **komunitarioa ezin baita edozer gauza izan** (Gizarte Etxe-faxista ez da komunitarioa; GKE erlijiosoak «komunitatea» al dira?).

Komunitatea eta komunitarioa pentsatzeko modu ezberdinak ditugu gure artean:

- **Hiruki** gisa irudikatzea: administrazioa, gizarte zibil antolatua (leku batzuetan indartsuago eta beste batzuetan ahulago) eta kooperatibak. Hau da, pentsa genezake komunitatea ez dela gizarte zibila, baizik eta tokiko egoeraren arabera triangulu horren kudeaketa on bat: Gobernantza-eredua berritzea.
- **Ekonomia soziala eta solidarioa** komunitarioaren parte da, ez merkataritzarena: bere konpromisoagatik, tokian tokikoaren parte direlako eta lana komunitatearen esku geratzen delako.
- **GKE erlijiosoak edo asistentzialistak** ez dira sartzen aipatzen ari garen komunitario horretan.
- **Komunitarioa egunerokotasunarekin, afektibitatearekin eta bizikidetzarekin lotutako jarrerak dira.** Administrazioak ez du inoiz hori egingo. Funtsezko edo oinarritzko zaintza lanak ez ditu zerbitzu batek ematen; **bitza komunean eraikitzea da kontua, jendearekiko atxikimendua lantzea.** Nola egituratzen da hori? **Sentsibilizazio feminista handiarekin**, horregatik, ez dugu soilik administrazioa interpelatu nahi, jendea, gizonak...ere interpelatu nahi ditugu.

Badugu al dugu komunitaterik?

Hemen ere, hainbat begirada:

- **Komunitatea eraiki egin behar da**, hutsune bat dagoelako. Gaur egun, familia da komunitatearen eragile nagusia.
- Zaintzarekin lotutako lan asko komunitate ezberdinen bitartez egiten dira, baina indartsuenak eliza katolikoari lotutakoak dira (Caritas, adibidez). **Aitzitik, mugimendu feminista garen aldetik, ez dugu zaintzari buruzko esperientzia komunitario askorik**, pandemian garatutako sareez gain.
- Komunitarioa zer den definitzerakoan, **ez gara hutsetik abiatzen.** Zaintza-zentzu batetik, auzoak eta herriak berreraikitzeke tokiko prozesuak/plan pilotuak identifika ditzakegu (adibidez, kolektiboan zaintzeko eskuragarri dauden espazioak identifikatu), eta jardunbide egokien mapa osatu dezakegu, hemen ezarritako ildoen arabera ondo funtzionatzen ari diren prozesuen mapa bat.





- **Komunitatea behar sinboliko eta praktiko gisa berreraiki** beharra dugu. Familiaren eta instituzioaren artean, komunitatearena da funtsezko rola. Zaintzak etxeetatik atera behar ditugu eta herriak eta auzoak zaintzaren begiradatik berrantolatu. *Auzolana* berreskuratu behar dugu, gure herrietan egiten den bezala, *auzolanean* oinarritutako zaintzak antolatzeko.

Zer eginkizun izan behar du komunitarioak zaintza-sistema horretan?

Gure jarrerak bi punturen arabera dira:

Komunitatearen zeregina behatzera/proiektatzera mugatu behar da, urrutirago joan gabe. Arriskutsua da arlo komunitarioak zeregin bat izatea zaintza-horniduran, arlo publikoa merkantilizatuta dagoelako (are gehiago ireki diezaieke bidea enpresa pribatuei), gainera, hobeto definitu gabe badago zer den komunitarioaren kontu hori.

Komunitateak zaintzak eman/hornitu behar ditu. Izan ere, arlo publikoa iristen ez den lekura iristen da arlo komunitarioa (publikoa heltzen ez den kolektiboetara, edo eta "etiketa" formaletatik kanpo geratzen diren egoeretara, adibidez, legeak aitortutako mendetasun-mailetatik kanpo geratzen direnengana), eta, gainera, zaintzak erantzukizun kolektiboa direlako.

Erdibidean, iritzi sorta bat dugu:

- Arlo komunitarioaren eta publikoaren arteko harremanak estua izan behar du, Kogestio-eredua. **Publikoak komunitatearen zerbitzura egon behar du.**
- **Gure apustua publikoa indartzea izan behar da**, unibertsala izateko gaitasuna duelako.-Komunitatea ezin da artikulatu Estatu erretiratzen denean; aitzitik, zerbitzu publikoak exijitu behar zaizkio Estatuari, eta komunitatea eraiki ahal izateko neurriak jartzeko eskatu behar zaio (inbertsioak artikulatu gabeko komunitateetan, azpiegiturak instalatzea...).
- **Arlo publikoak eremu komunitariotik kudeatzen diren ekimenak eta zerbitzuak bermatu behar ditu**, ekipamenduen, aurrekontuen, pertsonen... bidez.

Zer arrisku ditu komunitarioari eginkizun bat emateak zaintza-sisteman?

- Komunitatearen antolaketak **denbora, baliabideak eta egonkortasuna behar ditu.** Hau da, komunitatea ezin da bermatu, proiektu komunitarioak ezin dira leku guztietan eta une oro ziurtatu.
- Komunitarioa definitzen dugunean, **privilegioei arretaz begiratu behar diegu**: nork ditu aukerak eta nork ez?
- **Inplikazio unibertsala**: Jendarte osoa prest egongo da zaintzan inplikatzeko? Komunitatea arautzen ez bada, nola lortuko da, adibidez, gizonek lan horiek egitea?
- Komunitarioak **feminizazio/arrazializazio/doakotasun arriskua du.**

Zer nolako sistema publikoz ari gara?

Askotan, eztabaida honen fokua, zer zaintza geratuko diren komunitatearen esku horren gainean jartzen dugu, baina ez zer administrazio mota nahi dugun horretan. Hala ere, **argi daukagu orain daukagunak ez duela balio**: politika pribatizatua dago. Feministok gogoeta hau mahai gainean jartzera ausartu gara.

- Publikoa nolakoa izan behar duen zalantza asko sortzen zaizkigu: zaintzek gizarte-zerbitzuetan egon behar dute? Noraino iritsi behar du publikoak? Zer rol jokatu behar du? Egungo ereduak nahi al dugu (adibidez, makrorresidentziak)?
- Nola berrizendatu publikoa dena, arlo publiko-komunitarioa elkar helduta joan daitezen, baina dena komunitario bihurtu gabe?

Pribatizatu gabeko publikoa. Irabazi asmoarekin amaitzea

Apustu hau argi daukagu: zaintzak kolektibizatzeke trantsizioan, **pribatizazioa problematizatu eta politizatu egin behar da**. Eta ezin da eskubide urraketaren (zaintzen dutenen edo eta jasotzen dutenen) kontura irabazirik izan. Nola lortu?

- **Zerbitzuen erabilera ezin da baliabide pertsonal edo familiarren araberakoa izan** (ikuspegi hori da osasunean aplikatzen dena, eta zaintzan ere hau aplikatu beharko litzateke zaintza eskubide bat izan dadin, eta ez pertsona jakin batzuen eskura dagoen pribilegio bat). Zerbitzuen kontsumitzaile bihurtzeko arriskua dugu, zaintzak erosi egiten ditugu.
- **Pribatizazioarekin legez amaitu behar da**. Baina nola publikatuko ditugu zerbitzuak edozein lan azpikontratatzeko joera dagoenean eta udalak baliabiderik gabe utzi direnean? Adibidez, etxez etxeko laguntza-zerbitzuak hustu egin dira, baina potentzialtasun izugarria dute.
- **Arlo publikoa behatzeko sistema bat ezarri behar da**, baita azpikontratatuta dagoenean ere, eskubideen urraketan kontura irabazirik ez dagoela ziurtatzeko.

- Aukera bat **erantzukizun** publikoko eredu bat da, hau da, finantzaketa publikoa eta kudeaketa mistoa egotea (adibidez, kooperatiben bidez), hurbilekoa, sistema publikoak kontratatzen dituen zerbitzuak irabazi-asmoetan oinarritzen ez direla ziurtatuz.
- Zaintzek ez dute negozio bat izan behar, baina bai **bizibide jasangarri bat**, adibidez gizarte-ekonomia solidario eraldatzaileari lotutako enpleguen bidez, arlo publikoarekin lotura publiko-komunitarioaren bidez lotua.
- **Zerbitzuak berriz udalerriratzea**. Azpikontratazioerik ez.

Zer egingo dugu familiekin? Eta instituzionalizatutako zaintzekin?

- Zer leku bete behar dute familiek? **Zer da familien kontu hori?**
- Etxean zainduak izateko aukerak? Nola? **Etxean zaindu ahal izateak arriskuak eta aukerak ditu**. Administrazioek aipatzen duten desinstituzionalizazioaren aurrean, guk instituzionalizatzearen aldeko apustua egiten dugu? Geure buruari galdetzen diogu, ea hogeita lau orduko laguntza behar duen norbaitek etxean egon behar ote duen.
- **Zer zaintza mota desinstituzionalizatu daitezke hauen ardura familiei itzuli gabe?** Eta, alderantziz, familietatik ateratzeak esan nahi du erakundeen esku uztea? Imajina ditzakegu tarteko beste modu batzuk? Sartuko litzateke hemen komunitatea (adibidez, etxebizitza komunitarioen aldeko apustuaren bidez)?
- Komunitateak sor daitezke beste familia-eredu bat eraiki gabe? Familia nuklearra sistema kapitalistaren kontsumo-unitate nagusia dela kontutan hartuta. **Familia-eredua birpentsatu eta eraldatzeko beharra**: arlo publikoarekiko harremanean ere bai: belaunaldien arteko harremanak sustatzea, gazteak, familia heteronuklearretik haragoko kontziliazio neurriak, etab. Beste familia-eredu batzuk sustatzeko, zaintzari lotutako eskubideak familia konbentzionaletik harago zabaldu behar dira. **Binkulograma** batean pentsatzen dihardugu (aurrerago azaltzen dugu, hirugarren bidea garatzen dugunean: Zaintza-eredu emantzipatzailea eraikitzea). Zaintzak bizitza osoan zehar behar direla pentsatuz, **belaunaldien arteko espazioen** beharra planteatzen dugu.



3.2 Zaintza-lana duintzea eta profesionalizatzea

3.2.1. Hausnarketarako abiapuntua

Duintzearen eta profesionalizatzearen aldekoak gara

Zein egoeratan gaude?	Zer lortu nahi dugu?
<p>Zaintza, gaur egun, balio eta aitortzarik gabeko lana da, hiru arlo nagusitan:</p> <ul style="list-style-type: none">• Ordaindu gabeko zaintza, batez ere, emakumeek etxeetan eskaintzen dutena: ez dago balioetsia eta horren ardura intentsiboki hartzea kaltegarria da bizi-kalitaterako, parte-hartze sozioekonomikorako, eskubide sozialak erabiltzeko, etab.• Etxeko enplegua (feminizatua eta geroz eta etno/arrazializatuagoa): lan mota horretan hainbat eta hainbat eskubide urraketa gertatzen dira (laneko eskubideak eta giza eskubideak). Barneko etxeko enplegua “mirabetza neokolonialaren” modu bat da.• Zaintza mota batzuk profesionalizatuta daude (haur hezkuntza, geriatría, etxez etxeko laguntza zerbitzua...) eta era prekarizatuan eta lan-baldintza txarretan egiten dira. Lan horiek tokian tokiko emakumeek egiten dituzte, eta gero eta gehiago dira emakume migratuak.	<p>Gure apustua:</p> <ul style="list-style-type: none">• Zaintza-lan guztiak duintzea; ordaintzen direnak eta ez direnak.• Zaintza-lan batzuk profesionalizatzea (hau da, enplegu bihurtzea). Ez dugu uste zaintza guztiak enplegu bihurtu behar direnik (esaterako, norberaren buruaren zaintza eta etxeko eta komunitateetako elkarrekiko zaintza).



Zer zaintza profesionalizatu nahi dugu?

Zer esan nahi du zaintza-lan ordaindua profesionalizatzeak eta lan-baldintza duinetan emateak?

Zer esan nahi du zaintza-lan ez ordaindua duintzeak?

3.2.2. Jardunaldietako gogoetak

Zaintzei balio handiagoa ematearen aldeko apustua egiten dugu

- **Zaintza-lana ez da duindu behar, lan duina da!** Balioa eman behar zaio. Horregatik aldatu genuen hau zioen hasierako proposamena: "Duintasuna ematea zaintza-lanei?".
- Zaintza-lanari (ordaindua eta ordaindu gabea) eta lan hori egiten duten emakumeei **balio handiagoa ematea**, bizitzaren iraunkortasunari egiten dioten ekarpenagatik.
- **Zaintzaileen**, profesional edo ez profesional izan, **bakardadeari nahiz isolamenduari aurre egitea**.

Nola balioa eman zaintza ez-profesionalei/ordainduei?

Uste dugu zaintza guztiak ez direla profesionalizatu behar. Baina **ordaindu gabeko zaintzak antolatzeke modua eraldatu behar da**. Hauek dira moduak:

- Bizitza osoan zehar beharrezkoa den zaintzarekiko erantzunkidetasunaren aldeko jarrera sustatzea.
- Ordaindu gabeko zaintzen balioa handitzeko, beharrezkoa da zaintzeko ditugun **baldintza materialak** kontuan hartzea.
- Zaintza lanak egiten diren **testuinguruak** kontuan hartzeko beharra. **Espazio irisgarrien/eskuragarrien** beharra.
- **Etxe komunitarioak, belaunaldien artekoak eta etxerik ez duten emakumeentzako harrera-etxeak** sustatzea.
- Profesionalentzako/senideentzako **guneak sortzea**, arreta/komunikazioa hobetzeko, isolamendua hausteko, sareak sortzeko.
- **Baimenak** faktore garrantzitsua dira. Enpresen erantzunkidetasun-eskubideak ez daude ber, atuta (ez sektore maskulinizatuetan, ezta sektore publikoan ere Osakidetzan, adibidez) gurasotasun-baimenak beste lan-eremu batzuetara (industria, meatzaritza, etab.) zabaldu behar dira. Baimen horiek legezko/odoleko familia gainditu behar dute (berriz ere, lotura berriak sortu behar dira, binkulogramak).
- Historikoki ordaindu gabeko zaintza-lanak egin dituzten emakumeek **pentsio eta erretiro duinak** jaso beharko lituzkete.
- Zaintzarekin lotuta dauden **laneko gaixotasunak** aitortzea.
- Oinarrizko **errenta unibertsala** ordaindu gabeko zaitza-lanei balioa emateko modu bat izango litzateke?





Profesionalizazioaren garrantzia

- Zaintza-lan konplexuek profesionalizazio-maila handia eskatzen dute. Profesionalizatzea da, lan hori egiten duten emakumeek, lan hori egiteko baldintza justu eta duinak aldarrikatzeko modua.
- Zaintza-lana profesionalizatzea, eta, zehazki, etxeko enpleguak eskatzen du (1) kategoriak bereiztea, (2) erregimen orokorrean eskubideak eta kotizazioa erabat parekatzea.
- Profesionalizazioak indibidualismoa sustatzen du?

Nola balio handiagoa eman zaintza profesionalizatuko lanei?

Premiazkoa da zaintza sektoreko **lan-baldintzak hobetzea**, bai publikoan, bai azpikontratatuan. Nola egin dezakegu?

- Zaintzako lan-baldintzak betetzen direla **ikuskatzea**, lan horiek egiten dituzten pertsonen eskubideak urra ez daitezen.
- Ordaindutako zaintzetan lan-baldintzak eta eskubide-urraketak **arloan publikotik kontrolatzeko mekanismoak** ezartzea.
- Modu prekarioan eskaintzen diren zerbitzuak **salatzea**, prekariedade horren atzean zerbitzu horiek ez eskaintzeko grina dagoelako, adibidez, etxez etxeko laguntza-zerbitzu (ELZ).
- **Etxez etxeko zerbitzua berreskuratzea** eta erabiltzea (udal-eskumena). Etxez etxeko laguntza-zerbitzuren funtzionamendu-eredu berri bat. Baldintzak hobetzea.
- **Egoitzetan lan-baldintzak hobetzea** eta dekalogo bat ezartzea, publikoetan zein pribatuetan errespetatu beharrekoa.

- Gaur egun Administrazio Publikoek azpikontratatu dituen zerbitzuetan, **tentsio** bat ikusten dugu: lizitazioen irizpideak aldatzea (kooperatibaren kontratazioa lehenestuz, mozkinak handitu nahi dituzten erakundeak azpikontratatu ordeztuz -epe labur posiblistak-) eta publiko egitearen artean (epe luzea, ideala). Kooperatiben inguruko zalantzak eta eztabaidak ditugu:
 - Zaintzan ez dago kooperatiba askorik, eta, horietan, desagerrarazi nahi dugun eredu erreproduzitzen dugu: emakume migratuak daude lanean, eta gure helburua da zaintzak ez egotea feminizatuta eta arrazializatuta. Gainera, kooperatibek ez dute adinekoen egoitzak edo etxez etxeko laguntza-zerbitzuak kudeatzeko gaitasunik.
 - Kooperatibak kontratatzen badira, behatze eta alerta jarrera izan behar da, haien printzipioak noiz betetzen ez dituzten ikusteko.

Zer egingo dugu etxeko enpleguarekin?

- Gure zaintza ereduaren ortzimugan ez da kokatzen, dena onartzen duen kaxoi desastre (saski-naski) gisa etxeko lana erabiltzea, berarekin zer egin ez dakigun guztia sar baitaiteke bertan. Baina, zeru-hertz horretatik harago, gaur egun etxeko lanak konpondu gabeko **eztabaida izaten jarraitzen du: abolizioa edo erregulazioa?** Kontuan izan behar da bizirauteko estrategia dela emakume batzuentzat.
- Etxeko enpleguari balio handiagoa emateko, funtsezkoa da **Atzeritarrei buruzko Legea berrikustea**; izan ere, lege horrek migratuen eskubideak urratzen ditu, eta, batez ere, administrazio-egoera irregularrean dauden emakumeenak. Ezohiko erregularizazio-prozesu bat? Erregularizatzeko baldintzak malgutzea (adibidez, errozte arrazoiengatik epeak murriztea eskatzea)?
- **Sindikatuetan etxeko langileentzako doako lan-aholkularitza.**
- **Barneko etxeko enplegua desagerraraztea**, menpekotasuneko-lana delako? Posible litzateke baldintza duinetan arautzea?
- **Etxeko langileen kooperatibak sortzea trantsizio-estrategia bat izan daiteke**, lan-baldintzekin kontuz ibiliz.



Zaintzen lan-sektoreko prestakuntza/formakuntza eztabaidagai

15

Tituluen sistemari buruz eztabaidatu genuen. Zaintzen inguruko prestakuntza garrantzitsua da, baina baldintzetan arazo handiak daude (langileen bizi nahiz osasunaren kontura). Etxeko enplegua profesionalizatzeko modu egokiari buruzko eztabaida, ziurtagiri soziosanitarioari buruz zer iritzi dugun eztabaidarekin lotzen da. Bi jarrera nagusi ikusten ditugu:

- **Ziurtagiria ezinbestekoa da zaintzen jakiteko, baina lortzeko modua aldatu behar da** (adibidez: prestakuntza jaso bitartean behar duten emakumeak finantzatzea). Ziurtagiri soziosanitarioa eskuratzeko, kontuan hartu behar dira, batez ere, mendeko pertsonak zaintzen barneko gisa lan egiten duten emakume migratuen errealitateak.
- **Ziurtagiria ez da beharrezkoa** (langileek badakite zaintzen), ez da eskatu behar erregularizaziorako; aitzitik, gaur egun lan horretan ari diren guztien zaintzaile estatusa aitortu behar da.

3.3 Zaintza-eredu emantzipatzailea eraikitzea

3.3.1. Hausnarketarako abiapuntua

Zaintza-eredu emantzipatzaile baten aldekoak gara

Zein egoeratan gaude?

Zer lortu nahi dugu?

Zaintzaren banaketa eta zaintza-lanaren antolaketa ez dira eragozpenak eragiten dituzten alderdi bakarrak. Zaintzaren kultura toxiko bat ere badugu; zaintza nola eman eta jasotzen dugun eta zaintza-harremana nola pentsatzen dugun kontuan hartuta.

- Pertsonak banatu egiten ditugu: zaintza ematen dutenak (eta immolatzeari eskatzen diegunak) eta zaintza jasotzen dutenak (eta subjektu pasibo, gauza, bihurtzen ditugunak). Hori begirada morroi eta ahalgabetzailea da.
- Gainera, horrek eztabaidatik kanpo uzten ditu ustez zaintza behar ez dutenak eta ematen ez dutenak (dibertsitate funtzionalik ez duten gizon helduak, oro har; eta gero eta emakume gehiago).

- Elkarrekiko zaintzaren kultura bat eraiki: zaugarritasuna eta interdependentzia aitortuko dituen.
- Zaintzarako eskubidea eskubide kolektibo unibertsaltzat aitortzea (persona guztientzat izatea), eta bizitzen dibertsitatea (ez hegemonizatzea) eta zaintza-harremanen dibertsitatea ere aitortzea.



*Zer da ondo zaintzea /ondo zaindua izatea?
Nola eraiki elkarrekiko zaintzaren kultura?*

3.3.2. Jardunaldietako gogoetak

Zer dira zaintzak?

- Zaintzak **zaurgarritasun handieneko faseetatik harago doaz**. Zaintza ez da harreman dikotomiko bat: guztiok eman eta jasotzen dugu zaintza bizitzako momentu ezberdinetan.
- Zaintzaile eta zaindua dikotomia: sarri zaintzaile begiradatik, rol honetatik begiratzen diogu, **aldiz zainduaren paperean ez gara jartzen** (konnotazio negatiboa dauka, zu zeu menpeko ikustea dakar)
- **Ondo zaintzea bizi-zikloan zehar aldatzen den zerbait da**. Zaintzaren esparrua mendekotasunetik harago zabaldu behar dugu. Beste era batera esanda: mendekotasunean pentsatzen dugunean, adinekoengan baino ez dugu pentsatzen, eta bizitzan zehar mendetasun-egoera asko daude.
- Zaintzaren ikuspegia zabaldu behar da, baita **osasun mentalarena** ere. Premiazkoa da buru-osasunaren eta gazteen egoera, nola igo den suizidioen tasa. Emakumeen nekea eta osasun mentala, oro har, osasun-arazo gisa adierazten da, farmakoterapiak konponduta. Hori desberdintasunaren patologizazioa da.
- **Sexu-osasunari** ere erreparatu behar zaio, eta zer esan nahi duen galdetu. Beti lotzen dugu harremanekin, eta ahaztu egiten zaigu autoerotismoa sexu-osasunaren zati gisa.
- **Zaintza-beharrak ez dira materialak bakarrik**. Zaintza-premiak zer diren zabaldu behar da. Dimentsio materiala eta emozionala dutela onartzen dugu.

Infantilizazioa eta eredu ezgaitua

- Gaur egungo zaintza-eredua infantilizatzailea da, bai zaintzaileekiko (mundu guztiak eman dezake ama batek nola zaindu behar duenaren inguruko iritzia, emakumeen autorizazio eza, emakumeak izaki gutxitu gisa = tranpa perfektua), bai zainduak direnekiko. Jabetza-sentimenduekin lotuak dira gainera. Zaintzen diren pertsonen infantilizazioarekin amaitu behar da. Egoitzetako pertsonen **autonomia errespetatzea** eta haien erabakitze gaitasuna bermatzea.
- **Pertsonen ezgaitasun-eredu bat dago**, adinarekin eta eten digitalarekin lotua, eta konpondu egin behar dugu (adinkeria).
- Indarrean den ereduak mendekotasunean sakontzen du. **Bizitza independentearen aldeko mugimenduek ekarpen handia egin dezakete autonomiaren kontzeptuaz**, eta zahartzarora eramanda, autonomiaren esanahiaz ez ezik, zaintzaren zentzuaz pentsarazi ahal digu: askotan pentsatzen dugu zaintzea zerbitzatzea dela, zerbitzu bat ematea-jasotzea. Bestalde, zahartzaroen, non geratzen da intimitatea, sexualitatea?





Zer da ondo zaintzea?

Galdera hori egiteak zaintzak gaur egun mugitzen diren esparru sinbolikoa zalantzan jartzera garamatza.

- Ezer baino lehen, derrigorrezkotasunaren eta zaintzen infantilizazioaren/naturalizazioaren **plano sinbolikoarekin hautsi** behar da.
- Ondo zaintzea, **zigor materialik gabe** (dirutan edo denboretan) zaindu ahal izatea izan liteke, eta zaintzen zaituenari eskubideak kentzen dizkion zama izan gabe.
- Aukeratzeko eskubidea bermatzea, baina **aukera askearen ideia kritikoki berrikusita**, beste batzuen kontura izan gabe, bereizkeriarik egin gabe (ez da norbait 24 orduz zure zerbitzura egotea, ez da praktika arrazistak egin ahal izatea). Zainduko nauen pertsonaren eskubideak hasten diren lekuan amaitzen dira nireak.
- Zaintza kultura deseraikitze beharra. Nola? **Heteronormatibitate kanpo**. Osasuna eta gorputz anitzak kontuan hartuta: sexualitatea, aniztasun funtzionala, osasun mentala...
- Non sentitzen gara ondo zainduak? Zenbateraino da etxearen goxoa ideia eraiki bat?
- Bereziki kezkatzen gaituzte **zaintzetan mugitzen diren botere-harremanek**. Zaintzekin lotutako gatazkak ikusarazi behar ditugu: genero-aginduak eta etnia-arraza-klase-genero morrontza-aginduak. Zaintzak tentsio-, botere- eta, askotan, isolamenduguneak dira. Zein posiziotatik hasten da zaintza-harremana? Aldarrikapen zehatzen artean, zainduko duena aukeratzeko orduan praktika arrazistekin amaitzeko mekanismoak ezarri behar direla planteatzen dugu.

- Profesionalizatzen denean, ongi zaintzea zer denaren inguruan jar daitezke irizpide batzuk. Baina harreman afektibo bat dagoenean, botere harremanak ere badaude. **Tratu onerako oinarri** gutxieneko bat **errespetua da**; erritmoak errespetatzea, intimitatea zaintzea.

Zaintzak afektuak dira?

Bereziki kezkatzen gaitu zainketen dimentsio afektiboak. **Tentsioak eta arriskuak planteatzen dira adostasunak baino gehiago**: Batzuek esaten dute zaintzak ez dituela behar afektiboak bete behar eta zaintza lanak ez duela harreman afektiborik sortu beharrik, beste batzuk ez dute hain argi ikusten hau.

- Erne egon behar da, **familiarizaziorako tranpa** harreman afektiboetan zentratzen baita
- Zaintzaren dimentsio afektiboa arrazakerian oinarritutako estereotipoak elikatze erabili izan da etxeko langileak kontratatzerako orduan.
- **Intentsitate maila ezberdinetako** zaintza behar afektiboak egon daitezke?
- **Zaintzeak ez dakar bere baitan maitasuna**. Emozionala izan daiteke ongi tratatzea (ez du zertan maitasunarekin edo harreman afektibo batekin lotura izan)
- Teorian **zaintzaren dimentsio ezberdinak banatzea** zaila da, baina praktikan garrantzitsua da zaintza jaso eta ematen dutenen arteko harremanak definitzeko orduan.
- **Lan baldintzekin** lotu daiteke, adibidez, egoitzetako ratioekin: zein zaintza mota hartzen dugu kontuan ratioak kalkulatzeko orduan?
- Gure buruari galdetzen diogu ea **komunitateak bermatu behar dituen** zaintzen premia afektiboak.



Beste zaintza-kultura baterantz

Batzuek esaten dugu zaintzaren kultura zitalaz hitz egin behar dugula. Beste batzuek zaintzaren kultura bat sortu behar dela esaten dugu.

Nolanahi ere, **asko dago eraldatzeko**:

- Zaintzaren erantzukizuna guztiona dela uste dugu, eta hori zaintza-kultura bat eraikitzearekin lotuta dago. **Elkarrekikotasun-harremanetan** zaintzaren aldeko apustua egiten dugu.
- Elkar zaintzeko, **aldaketak behar dira oinarri materialetan**, bizitza antolatzeko moduan: emakumeen diru-independentzia bermatzea, espazio kolektiboak eta belaunaldien artekoak sortzea (etxebizitzari dagozkionak ere bai).
- Alde batetik kolektibizatzeaz ari gara baina bestetik gure mugimenduan bertan eta feminismoetatik ere badaude jarrera eta **ideia oso indibidualistak** (nire umeak, ..). Honi nola aurre egin?
- Zaintzen kultura aldatzeak **genero-aginduak aldatzea** dakar:
 - **Gizonen inplikazioa** eskatzea nahiz ez zaintzeko duten pribilegioa salatzea, baina nola? Gizonei exijitzen diegu, baina nola egin jada aldatuko ez direnekin?
 - **“Dena maitasunagatik”** desmuntatu. Zaintzari dagokionez emakume gisa dugun eraikuntza aldatzea: zaintzak bide bakartzat duen bokazioa haustea. Zaintzen eta afektuaren arteko identifikazioa haustea. Ama on sinbolikoarekin apurtzea.
- Politika publiko parte-hartzaileek eta sentsibilizazio-proiektuek zeregin garrantzitsua izan dezakete aldaketa horretan.

Zaintza kolektiboago baten alde egitea

- Beste era batera zaintzeko zirrikituak bilatzeko beharra: **zaintza aurreikustea eta kolektibizatzea**. Zaintzen esparrua familiatik harago zabaltzea.
- Aldarrikapen zehatz bat binkulogramak dira: odolezko familiatik kanpo, zainduko ditugun pertsona batzuk aukeratzea, eta haiek zaintzeko eskubidea aitortzea legez edota lan itunetan. Eredu berri baten proposamen gisa, afiliazio nuklearraren eredia, odolkidetasunarenarekin hautsiko duena.
- Hainbat eskaera egin ditzakegu. Hirigintzan: udal ordenantzetan kontuan izan; adibidez, arropak eskegi ahal izatea kanpoan, eraikinetako baxuetan zaintzarako espazioak jartzea...

Zaintza-kultura baterako/beste baterako hezkuntza

- Non ikasten dugu zaintzen? **Hezkuntza sistema** kontuan hartzea ere garrantzitsua da (hezkuntza formala nahiz ez formala), zaintza eremu emantzipatzaileak sortzeko aukera eman dezakeelako.
- Gure ustez, haurtzarotik **irakatsi behar da zaintza** (zaintza guztiona dela). Hezkidetzan, rolen banaketaz harago, lanen banaketa ere auzitan jarri: emakumeek zaintzen badugu da hala irakasten digutelako.
- Baina **eztabaida dugu zaintzak curriculumean** irakasgai gisa eta/edo hezkuntza formalean zeharka sartu behar ote diren.
- **Zainketen eskola** bat sortzea proposatzen da. Zainketen pedagogia.
- **Zaintzen ikasteak** ezin da soilik alderdi kognitibotik egin, praktika eskatzen du zaintza-eskolari begira.



4. DIMENTSIONEN ARABERAKO ZAIN-TZA-SISTEMA PENTSATZEN

Bizitzak Erdigunean koordinadorak zaintza-sistema publiko-komunitario batean pentsatzea proposatzen du, lau zutaberekin:

1. **Autonomia sustatzea eta mendekotasun-egoerei arreta egitea** (zahartzea eta dibertsitate funtzionala)
2. **Hurtzaroa**
3. **Zaintza-lanak** (Profesionalizazio- eta errebalorizazio-prozesu horri eskainia)
4. **Zaintza modu zabalago batean** pentsatzeko leihoa zabalik utziko duen ikusmira, oraindik nola definitu ez dakigun hori garatzeko espazioa.

Lau zutabe horiek ez ditugu jardunaldietan eztabaidatu. Zaintza-sistemak nola funtziona dezakeen imajinatzen hasi ginen, bizi-zikloaren une eta egoera desberdinetan agertzen diren beharrei erantzuteko. Dibertsitate funtzionalaz, zahartzeaz eta hurtzaroaz ari gara. Baina une eta zirkunstantzia hauetatik harago joan nahi genuen (horietara mugatzen da askotan zaintzen begirada), zaintzak egunero guztioi eragiten diguten zerbait direlako, planteamenduarekin koherenteak izateko. Horregatik, geure buruari galdetzen diogu zer gertatzen den bizitzan zeharreko zaintzekin. Hemen jasotzen dugu hitz egindakoa.



DIBERTSITATE FUNTZIONALA

ZER: Edukia	<p>Izendatzeko modua: ez dago adostasunik gaztelaniaz izendatzeko moduari buruz (dibertsitate funtzionala, desgaitasuna edo arauz kanpoko funtzionaltasun-egoerak). Euskaraz «elbarri/elbarritasuna» daukagu. Horrek zerikusia du eskubideak, baliabideak eta zerbitzuak aitortzearekin.</p> <p>Nondik hurbiltzen gara?: pertsonaren autonomiatik edo mendekotasunaren zaintzatik? Arazoa begiratzen duenarena da. Ez infantilizatu, ez estigmatizatu.</p> <p>Askotariko egoerak ezagutzeko beharra (desgaitasun mota asko daude, ez orokortu) eta planak, protokoloak eta ibilbideak egoera horietara egokitzeko beharra.</p> <p>Zer agentek zaintzen dute? Zer gertatzen da familia ez dagoenean?</p> <p>Zaintza-denborak birpentsatu.</p>
NORK: Parte- hartzaileak	<p>Edukien arabera, honako hauek identifikatzen ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none">• Hezkuntza-sistema (hezkuntza berezia edo hezkuntza ez-segregatzailea, ez dago adostasunik)• Zentro espezializatuak• Sektoreko elkarte eta GKEetako langileak
NOLA: Tresnak eta egiteko modua	<ul style="list-style-type: none">• Zeinu-hizkuntza ikastea• Hirigintzako aldaketak• Laguntzaile pertsonala• Tutoretzapeko etxebizitzak, cohousing (bakoitza gure etxean komunitatearekin harremanik izan gabe bizitzea jasanezina da)• Kontratazio publikoa (zaintza eta fiskalizazioa)
BESTE GAI BATZUK: Gainerakoa	<p>Langileen lan-baldintzak</p>



ZAHARTZEA

ZER: Edukia	<p>Zahartzaroaren ikuspegi feminista lantzea eta asistentzialismoan ez erortzea, edadismoa/adinkeria.</p> <p>Zer egiten dugu barneko lanarekin? Ez dago akordiorik. Etxeko langileentzako lan-baldintza duinak bermatu behar direla adostu da.</p> <p>Egoitzak: egungo negozio-eredua arbuiatzea. Zuzeneko kudeaketa publikoaren eredia defendatzea, hurbilekoa, zaharrak subjektu burujabetzat hartzen dituenak. Urgentzia: ratioak.</p>
NORK: Parte- hartaileak	<ul style="list-style-type: none">• Etxeko langileak (barrukoak eta kanpokoak)• Egoitzetako eta ELZko langileak• Emakume zaintzaileak
NOLA: Tresnak eta egiteko moduak	<p>Etxez etxeko laguntza-zerbitzua iraultzea</p> <p>Langile migratuek egiten duten zainketa-lanaren eta ekonomiari egiten dioten ekarpenaren errolda egitea</p> <p>Gaia lantzen ari diren beste eragile batzuekin aliantzak egitea (adinekoen kontseiluak, komunitatea)</p>
BESTE GAI BATZUK: Gainerakoa	<p>Zer da komunitatea eta nork osatzen du? Hura indartzeko beharra azaleratzen da</p> <p>Zaintza-premia sinpleak/errazak ditu komunitateak?</p> <p>Zaintza-premia konplexuak ditugu arlo publikoan?</p>



HAURTZAROA

ZER: Edukia	<p>Haur-eskola eta euskal eskola publiko unibertsala eta doakoa.</p> <p>Zaindu ahal izateko lan-eskubideak bermatzea eta jada daudenak zabaltea: kotizazioen % 100, baimen zabalagoak nahiz familia nuklearrean zentratu gabeak, etab.</p> <p>Lan-erreforma aldatzea zaintza lagundu ahal izateko.</p> <p>Erantzunkidetasuna: lanaren banaketa sexuala gainditzea</p> <p>Oinarrizko baliabideetara sarbiderik ez duten familia migratuen haurren urraketa-egoera.</p> <p>Familiarik gabeko haurren urraketa-egoera (harrera-etxeei buruzko eztabaida, instituzionalizazioa, harrerako familia-nukleoak, etab.).</p>
NORK: Parte-hartzaileak	<p>Edukien arabera, honako hauek identifikatzen ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none">• Hezkuntza-sistema (irakasleak, sindikatuak, IGEak)• Sektoreko eta eremu komunitarioko jendarte-eragileak: kalea/herria/auzoa/bailara
NOLA: Tresnak eta egiteko moduak	<p>Osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzu eta etxebizitzarako aurrekontu handiagoa aldarrikatzea</p> <p>Belaunaldi-arteko etxebizitza kooperatibak</p> <p>Komunitatea ehuntzea eta aktibatzea, auzoetan, herrietan, bailaretan... haurrak zaintzeko sareak sortuz (IGEen sarea, figura profesional berriak, etab.). Behetik gora eraikitzea</p> <p>Sistema publiko-komunitarioa erdigunean jartzea: lan-jarduera murriztea soldatak mantenduz, komunitarioaren ekarpena handitzea.</p>
BESTE GAI BATZUK: Gainerakoa	<p>Sektoreko langileen lan-baldintzak</p> <p>Zaintzak irakasgai gisa edo zeharkako ikuspegi gisa hezkuntza-sisteman (ez dago akordiorik)</p> <p>Haurrak entzutea eta subjektu aktibotzat hartzea</p>

BIZITZAN ZE HAR



<p>ZER:</p> <p>Edukia</p>	<p>Zaintza bizi-konstante bat da, baina kolektiboarekin lotutako zaintzak eta autozainketa zer diren mugatu behar da. Zaila da eraldaketa-proposamen zehatzak lurreratzea.</p> <p>Denboraren beharra. Beharrezkoa da denborak berrantolatzea.</p> <p>Zaindua izatea eskubidea da eta zaintzea betebeharra. Horregatik, ezinbestekoa da mugak jartzea, genero-aginduek gure bizitzako une desberdinetan zaintzera behartzen gaituztelako. Zaintzak emakumeen eta feminismoaren kezka izaten jarraitzen du; beraz, arriskutsua da defendatzea komunitateak eutsi behar diela zaintzei, zaintzak banatu behar dira. Nola interpelatu gizonak?</p> <p>Osasuna pribatizatzen ari da eta osasun publikoa partekatzen ez dugun eredu soziosanitario batera eramaten ari da, baina badirudi normalizat hartzen dela.</p> <p>Aktibismoaren esparruan:</p> <ul style="list-style-type: none">• Larrialdiei erantzun behar zaienean, sare komunitarioak martxan jartzen dira, nola jarri balioan eta denboran zehar iraunarazi?• Zaindu behar dugunean, aktibismotik desagertzen gara. Zaintzak erraztuko dituzten espazio malguagoak sor ditzakegu? Beste lotura batzuk sortu hori gerta ez dadin?• Gaztetxeak nahiz espazio mistoak emakumeen erresistentziarako espazioak dira, baina ez zaintzarako espazioak; izan ere, ezkerreko kolektiboen barruan jarrera antifeministak daude, zer egiten dugu?• Ondoezak politizatzea.
<p>NORK:</p> <p>Parte-hartzaileak</p>	<ul style="list-style-type: none">• Jendarte zibila.• Espazio kolektiboak, babes-sareak.• Hezkuntza-sistemako eragileak.

BIZITZAN ZE HAR



Zaintza-ardurek sortzen duten isolamendua saihesteko **loturak/familiak/komunitateak eraikitzea**. Zeintzuk? **Zaintzak banatzea**.
Gobernuei presioa egitea, honako hauek **exijitzeko**:

- **Lege-aldaketak**: lan-erreforma eta zerga-erreforma.
- **Baliabide ekonomikoak** erreklamatzeko, zerbitzuak eta baliabideak bermatzeko (dirua dago).
- **Aldaketak gizarte-politikan**: eremu horretako baliabide/zerbitzuen kontratu publikoetan irabazi-asmoa duten enpresak debekatzea.
- **Etxebizitzarako eskubidearen bermea**.
- **Aldaketak hezkuntza-sisteman**.
- **Pentsio unibertsala**.

NOLA:

Tresnak eta egiteko moduak

Hurbiletik, tokian tokitik, udaletan eta udal-espazioetan eragitea.

Beste proposamen batzuk:

- **Lanaldia murriztea eta zati bat zaintzei eskaintzea**.
- **Zaintzari lotutako eskubideak, soldata bati lotuta egon beharrik gabe**.
- **Lotura-gramak, binkulogramak**.
- **Formula hibridoak** probatzea, instituzioek, kooperatibek eta jendarte-eragileek parte har dezaten.
- **Espazio propioa eta espazio komunak erraztuko dituzten etxebizitzak**.
- Janarien berrantolaketarekin lotutako **talde agroekologikoak**.

**BESTE GAI
BATZUK:**
Gainerakoa

Zaintza, lurraren eta lurraldearen eskubideekin lotzea.

Ez dago adostasunik zaintzen duten emakumeentzat soldata aldarrikatzearekin.




5. URGENTZIAK ETA ALDARRIKAPENAK

5.1. Adostutako premiak

Eraldaketarako bide estrategikoak (kolektibizatzea, balioa handiagotzea eta profesionalizatzea, eta zaintza emantzipatzailearen eredu baterantz aurrera egitea) eztabaidatzeko taldeetan egin genuen lanari esker, **talde guztietan eta/edo talde bakar batean ere zalantzan jarri ez ziren urgentzia gisa agertzen ziren elementuak identifikatu genituen.**

Plenarion horiek guztiak aurkeztu ziren eta lehentasun-ariketa bat egin genuen, honako argazki honetan ikus daitekeena.





HEMEN
ADOSTUTAKO
LARRIALDI
GUZTIAK
JASOTZEN DIRA
ETA, LETRA
LODIZ ETA
AZPIMARRATUTA,
LEHENTASUNEZKO
TZAT JOTZEN
DITUGUNAK
AIPATZEN DIRA

KOLEKTIBIZATZEA PRIBATIZAZIOAREN AURREAN

- **Unibertsaltasuna bermatzea**
- **Irabazi-asmoa ezabatzea**
- **Sistema publiko indartsua**
- Arlo publikoa behatzeko/ikuskatzeko sistema
- Gehiago jakin: beharrak, esperientziak
- **Herriak eta auzoak zaintzaren ikuspegitik berrantolatzea (denborak, espazioak)**

ZAINZTA-LANA DUINTZEA ETA PROFESIONALIZATZEA

- **Zaintzen sektoreko lan-baldintzak ikuskatzea**
- **ELZren iraultza!**
- **Zaintzaile guztien erregularizazioa**
- **Etxeko enplegua erregimen orokorrean sartzea (189. – Hitzarmena)**
- Gehiago jakin: etxeko langileen errolda
- Etxeko enpleguari gutxieneko soldataren gaineko balioa ematea
- Pentsio duinak guztiontzat!
- Zaintzaileei laguntzeko sareak nahiz ekipamenduak

EMANTZIPATZAILEA DEN ZAINZTA EREDU BAT ERAIKITZEA

- Gizonek jan dezatela zaintzari lotutako marroia, kopon!
- Berriro haserretu nazioarte mailako sexuen arteko lan banaketarekin.
- Begirada zabaltzea eta osasun mentala sartzea
- Mendekotasun-legeari kaña ematea.
- Etxebizitzak eta belaunaldien arteko espazioak
- “Maitasunagatik dena” desmontatzea.
- **Familia nuklearrak harago: Lotura-gramak, hautatuko familiak!**
- **Zaintzak hezkuntza-eremuan sartzea**
- **Zaintzeko denborak (lanaldiak, baimenak)**



5.2. ADOSTUTAKO ALDARRIKAPENAK

**Aldarrikapen horiek talde bakoitzaren barruan adostu genituen (ez plenarioan).*

ETXEKO ENPLEGUA

189. Hitzarmena berrestea, etxeko enplegua eta zaintzak gizarte-segurantzako **erregimen orokorrean** kokatzea, honako hauekin batera:

- Hitzarmena berehala indarrean jartzea eta eskubideak erabat parekatzea (berretsi arte itxaron gabe)
- **Zaintza-lana erregimen orokorrean kokatzea**
- Dagoeneko aitortuta dauden **eskubideak betetzen direla ziurtatzea**. Lan-ikuskapenaren bermea
- Sektoreko **hitzarmen espezifiko** bat ezartzea

Administrazio-egoera irregularrean dauden etxeko langile guztiak **erregularizatzea** eta aldi berean bi bide erabiltzea:

- Zaintza-sektorea **estaldura zaileko lanbidetzat hartzea Hego Euskal Herrian**
- **Lan-harremana egiazta dezaketen langile guztiak erregularizatzea**, eta harreman hori justifikatzeko mekanismo zabalak eta malguak ezartzea.

Langile migratzaileek egiten duten zaintza-lanen eta ekonomiari egiten dioten ekarpenaren errolda egitea.



SISTEMA PUBLIKOA

Zerbitzu publikoen unibertsaltasuna, kalitatea eta doakotasuna bermatzea.

- Digitalizazioa, eta irisgarritasuna, unibertsaltasuna mugatzen duten elementu gisa:
- **Sistema publiko sendoa**: pertsona eta baliabide gehiago! Kontratazio zuzena!

Arlo publikotik egiten diren kontratazioetan irabazi-asmoa desagertzea: erreforma fiskala!

Adinekoen egoitzetan arlo publikoa indartzea:

- Egoitzen **publikazioa** eta langileen borrokarako laguntza. Egoitzak ez dira negozio bat.
- **Gipuzkoako hitzarmena** Hego Euskal Herri osora **zabaltzea**
- **Pertsona-ratioen igoera**
- Adinekoek erabakiak hartzeko orduan subjektu aktibo gisa zuzenean parte hartzea
- Hurbileko-sistema bat (udalarena), adineko jendearen parte-hartzea indartuko duena.

Etxez etxeko laguntza-zerbitzua iraultzea:

- **Hitzarmenik onena** (identifikatu zein den) Hego Euskal Herri osora **zabaltzea**
- Administrazioak **langileak zuzenean kontratatzea**
- **Udalek** funtsak erreklamatzeko, sektorea irauli eta hitzarmena betetzen dela kontrolatzeko



ARLO KOMUNITARIOA

Herriak eta auzoak berrantolatzea: ekipamendu publikoak eta komunitarioak indartzea!

Parte-hartzea eta kogestioa, publikoaren eta komunitatearen arteko zubia da.

Zaintza-denborak: baimenak handitzea, lanaldiak murriztea soldatak mantenduz!

- Lanak banatzea
- Lanaldiaren banaketa bat proposatzea, adibidez: 5 ordu lan ordaindua, 3 ordu zaintza, 2 ordu komunitatea

Familia nuklearrak harago: zaintza-baimenetarako lotura-gramak, binkulogramak.

Eskumen eta finantzaketa gehiago udal-etxebizitza politiketarako

- Hirigintzako ereduak eraldatzea
- Belaunaldien arteko etxebizitzak eta espazioak bultzatzea

Kontziliazio-neurriak betetzen direla bermatzea

- Ikuskapen gehiago, lan sindikala bultzatu, behatoki bat sortu

Komunitatea ezin da naturaltzat jo edo beti hor egongo dela pentsatu; hura indartzeko baldintzak behar ditugu:

- Tresna bat: hirigintza komunitarioa izan daiteke
- Komunitatearen definizioan ekonomia soziala eta eraldatzailea sartzea.

Pentsio duinak: gutxienez 1.080 euro.

Osasun publikoko mobilizazioei babesa ematea.

6. ADOSTUTAKO ESTRATEGIAK



Adostasunak

- Planteatutako lau proposamenen aurrean, Euskal Herriko martxa nazionala baztertzeko adostasuna dago. **Greba feministaren, akordio sozialaren eta Herri Ekimen Legegilearen** aldeko apustua egiten da.
- Zentzu horretan, talde guztietan adostutakoa da **prozesu lurreratua egitea, hala nola akordio soziala, greba feminista mobilizatzeko eta interpelatzeko tresna gisa erabiltzea, eta hori guztia epe luzera begira erabiltzea, HEL bat sortzeko**. Lehen bi urratsak urtebeteko denbora-tarte batean kokatzen dira, eta HEL epe luzerako muga gisa.
- Talde guztietan nabarmentzen da herrietan lurreratutako eta mugimendu feministak gidatutako prozesu baten beharra. Oinarrizko lana egitea (txingurri lana), gaia sentsibilizatu eta ikusarazteko. Emakumezko langileekiko lana lehenetsiz.
- Aldi berean, beste eragile soziosindikal batzuekin aliantzak egiteko beharra nabarmentzen da, akordio sozialari dagokionez.
- Argi ikusten da mobilizazioaren beharra erakundeak, gizartea, merkatua eta gizonak interpelatzeko.
- Greba feministaren kasuan, argi ikusten da martxoaren 8tik atera behar izatea.

Eztabaidarako gaiak

- Zein **ordenatan** planteatzen ditugu greba eta akordioa: greba gaia gizarteratzeko eta oinarrizko mugimendua sortzeko tresna gisa planteatzen da, akordio sozial baterantz baldintzak sortu ahal izateko? Aitzitik, aliantzak egiten hasi beharko genuke, eta akordio sozialaren nondik norakoak eztabaidatzen? Greba erabili akordioa bera sozializatzeko? Paraleloak dira?
- Zein **garaitan** planteatzen dugun hori guztia? Hainbat proposamen daude:
 1. Mobilizazioa 2022ko udazkenean (talderen batean Greba)
 2. Greba feminista 2023ko udaberrian.
 3. Greba feminista 2023ko udazkenean.
- Grebaren **ezaugarriak**: azkenekoak bezalako greba feminista nahi dugu edo greba orokor baterantz goaz?



* JARDUNALDIETAN PARTE HARTU ZUTEN ERAKUNDEAK

EHko Bilgune Feminista	TND eta Hitzarmena Orain
Bidez Bide Elkartea	LAB Sindikatua
Malen Etxea	ELA sindikatua
EMA (Emakumiak Mutrikun Abixan)	Gipuzkoako senideak
Iruñerriko M8 Plataforma	Emagin
Euskal Herriko Neska* Gazteak	Cuidarte
Soraluzeko Sororak	EkoSolFem (REAS Euskadi)
Azpeitiko emakume txoko	Red profesionales Osakidetza
Garaipen	Colectiva XXK
Basauriko emakumeen taldea	ODS (Donosti)
FeministAlde	Enarak Kooperatiba
Mujeres del mundo	EHU, Soziologia eta Gizarte Langintza saila
Ermuko emakumeen asanblada	Olatukoop
Sorginenaren	Bizkaiko Babestu
Errezilgo emakumeak	Ahizpa Nagusia
Erauzi talde feminista	Arakilgo emakume taldea